

60

BERGARA 2020. AROZTEGI ARETOA
Argazki erakusketa • Exposición de fotografía
Urriaren 9tik 25era • Del 9 al 25 de octubre

60

Bergarako Udal Artxiboa

Erakusketa honetan gure herria 60ko hamarkadan irudikatu nahi izan dugu; orduko Bergarako herritarren egunerokotasuna azaldu. Hirurogeiko hamarkada, zentzu askotan, aldaketa-garaia izan zen, eta argazki hauen bitartez gizarte haren zertzelada bat ekarri nahi izan dugu.

Begararren aisialdian zinea eta kirol-ikuskizunak nabarmentzen dira. Hemen, hauetariko batzuk ikusi ahal dira: pilota, txirringularitza, futbola, ziklo-krosa... Baina, horietaz gain, baziren mendi-irteerak, musika-taldeetan parte hartzea, domekero egiten ziren dantzak...

Aldaketa urbanistikoen garaia da. Alde batetik, industria berriak sortu ziren; aurretik zeuden ehungintza-lantegiez eta Zerrajeraz gain, beste sektore batzuetako lantegiak ere ugaritu ziren, eta horietako asko San Lorentzoko industrialdean ezarri ziren. Bestetik, etxebizitza asko eraiki ziren; hala nola, Fraiskozuri plazan, Irala kalean, Zabalotegin, Irizar pasealekuan, Matxiategin. Izan ere,

aurretik zegoen etxebizitzaren kopurua txiki geratu zen eta, gainera, haiek ez zuten betetzen garai hartan eskatzen zen erosotasun-maila.

Erljioak eta elizak garrantzi handia zuten. Bataio, jaunartze, ezkontza eta hileta elizkizunez haratago, edozein denda edo lantegi zabaltzerakoan edo edozein ospakizunetan beti egiten zen haien bedeinkapena. Hezkuntzan ere, bi ikastetxe handienak –Mariaren Lagundia eta Seminarioa– mojek eta fraideek zuzentzen zituzten.

Erakusketa honetako argazki denak Udal Artxibokoak dira. Artxiboan gorde eta kudeatzen ditugun fondoak herritarrei ezagutzera emateko modu bat da. Aroztegi aretoak hori egiteko aukera bikaina eskaintzen digu, baina milaka argazkien arteko aukeraketa egin behar izan dugu... Ez da lan erraza izan, baina zuen gustukoa izatea espero dugu.

ERAKUSKETA EXPOSICIÓN
60 - Bergarako Udal Artxiboa

ANTOLATZAILA ORGANIZADOR
Begarako Udala Ayuntamiento de Bergara

INPRIMAKETA-EDIZIOA IMPRESIÓN-EDICIÓN
K3 Inprimategia

ARGITARAPENA EDICIÓN
Begarako Udala Ayuntamiento de Bergara

LEGE GORDAILUA DEPÓSITO LEGAL
LG D 01031-2020



1962/05/20. Pentekoste jaietan 4 t'erdiko finalerdia Bergaran.

Toribio Jauregi fondoan. Egilea: Toribio Jauregi. R151927



1964. Bergara futbol-taldeko jarraitzaileak Donostian.

Toribio Jauregi fondoa. Egilea: Toribio Jauregi. R155333



Kros-lasterketa Agorrosingo futbol-zelaian.
Roman Larrañaga fondoa. Egilea: Roman Larrañaga. R012474



1966ko maiatza.

Toribio Jauregi fondoa. Egilea: Toribio Jauregi. R155001



1964/08/18. Irizar pasealekua.
Toribio Jauregi fondoa. Egilea: Toribio Jauregi. R152593



1962/03/08. Seminarioko ikasleen gimnasia-erakustaldia, gobernadore zibilaren bisitan.

Toribio Jauregi fondoa. Egilea: Toribio Jauregi. R151126



1964. Zerrajerako bulegoan lanean.
Toribio Jauregi fondoa. Egilea: Toribio Jauregi. R154933



1966ko ekaina. San Migel patronatuko ikasleen jaunartzea.
Toribio Jauregi fondoa. Egilea: Toribio Jauregi. R152642



1962ko abendua. Dantzari-taldea Bonifacio Laskurain txistulariaren omenaldian.
Toribio Jauregi fondoa. Egilea: Toribio Jauregi. R152961

60

Bergarako Udal Artxiboa

Ordutegia:

asteartetik ostiralera	18:00 - 20:30
larunbatetan	12:00 - 14:00
	18:00 - 20:30
igande eta jaiegunetan	12:00 - 14:00



AROTEGI
ARETOA



Begarako
Udala

